

Ostiralean Nuria Pérez-Cárcamoren RES-INCERTA erakusketa inauguratuko da Montehermoson

2017ko proiektu artistikoen arteko lehena da, eta azaroaren 12ra arte egongo da ikusgai kulturuneko lehen solairuan

Nuria Pérez-Cárcamoren RES-INCERTA erakusketa 2017ko proiektu artistikoen deialdian hautatutako lehen proiektua da; irailaren 22an (ostirala) aurkeztuko da jendaurrian, 20:00etan. Azaroaren 12ra arte egongo da ikusgai Montehermoso kulturuneko lehen solairuan.

Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Estíbaliz Cantok eta egileak berak aurkeztu dute gaur prentsaren aurrean.

Cantok proiektu artistikoen balioa goraiatu du, *“urtez urte hobekuntzak sartzen joan baikara, eta horrek gero eta proiektu gehiago eta hobeak aurkeztea bermatzen baitu; izan ere, hiru urtetan 22 izatetik 85 izatera igaro dira. Hori dela eta –erantsi du–, aurten beste proiektu bat hautatu dugu, ikus-entzunezkoa zehazki, gure asmoa baita tokiko artearen aldeko apustuak RES-INCERTA bezalako proiektuak eta karrera artistikoak bultzatzeko balio izatea”*.

Nuria Pérez-Cárcamo (Gasteiz, 1994) Artean graduatu da berriki, EHUren Arte Ederretako Fakultatean 2012tik 2016ra bitartean ikasi ondoren. Gazte Klik Klak 2015 eta 2016 argazki-lehiaketetan hautatua izan da, eta orain RES-INCERTA lana aukeratu diote 2017ko proiektu artistikoen barruan.

RES-INCERTA aurreko proiektu baten —Kundalini izenekoaren— garapen kontzeptual eta plastikoa da, maila pertsonala gainditu eta indibidualismotik haratago doazen beste eraikuntza batzuk zalantzan jarri nahian.

Gaurko gizarteak informazioa konpartimentuetan banatzeko joera du, errealitatea aldeztu aurretik emandako irudi eta kontzeptu multzo baten arabera antolatzekoa. Errealitate horretan murgilduta gaudelarik, sailkapen, ideia eta kontzeptu horiek mundu osorako balio dutela pentsatzera jotzen dugu, erabat arbitrario, subjektibo eta interesatuak diren arren.

RES-INCERTA proiektuak aldeztu aurretik ezarritako ikuspegi hori kolokan jartzen du praktika artistikoaren bitartez.

Espazioa baliatuz, artistak erlazio berriak eraiki ditu kontakizun pertsonala osatzen zuten irudien eta objektuen artean, mundua ulertzeko dugun antolamenduaren arbitrariotasuna zalantzan jartzearren.

Argazkiak izan dira proiektuaren abiapuntua: irudi pertsonalak, entziklopedi eta hedabideetatik hartutakoak eta bestelakoak harremanak sortzeko eta kontakizun bat eraikitzeko balio izan dute, lan egiteko formatu hurbil eta erraz batean (2D).

Irudi txikiek koaderno txikitan lan egitea errazten dute, irudiak kendu, erantsi eta mugituz, eta horri esker kontzeptu edo hierarkia analogietan oinarritzen ez diren erlazioak lortzen dira, hots, erlazio subkontzienteak eta alde zehatzetik zehaztu ezin ditugun erlazioak.

Hartara, mundua ulertzeko darabilgun antolamenduaren arbitrariotasuna zalantzan jartzera gonbidatzen gaituen instalazioa litzateke erakusketa.

Hauek dira hautatutako beste hiru proiektuak, banan-banan aurkeztuko direnak:

- ABYSAL SPACES. Anabel Quincoces (2018ko urtarrila-martxoa)
- UNA PELICULA Y UNA HISTORIA DE AMOR. Belén Cerezo (2018ko martxoamaiatza)
- ORBAINAK. Jorge Moneo (ikus-entzunezkoaren aurkezpena: martxoaren 20an)

“POP PURRI”

Bestetik, irailaren 22an “POP PURRI” erakusketa inauguratuko da Jovellanos aretoan, non Miguel Trilloren “*Afluencias. Costa Este–Costa Oeste*” erakusketaren kariatara egindako lantegiaren emaitzak ikusi ahalko baitira urriaren 15era arte.

Erakusketa dela eta, Montehermosok Gazteria Zerbitzuarekin eta Arabako Argazkilarien Elkartearen batera jardun zuen, Trillok lantegia egin eta inaugurazioan argazki set bat antolatzearen. Rocío Lópezek eta Dani Arrizabalagak egin zituzten argazkiak, Gasteizko tribu urbano gazteak —eta ez hain gazteak— erretratatzeko asmoz.

Horren emaitza egile bakoitzaren formatu handiko sei irudik osatutako erakusketa da; orobat, irudien postalak banatuko dira, Montehermoso eta Gazteria Zerbitzuaren lankidetzaren bitartez.

La exposición RES-INCERTA de Nuria Pérez-Cárcamo se inaugura este viernes en Montehermoso

Es el primero de los proyectos artísticos 2017 y estará en el primer piso del centro cultural hasta el 12 de noviembre

La exposición RES-INCERTA, de Nuria Pérez-Carcamo, es el primer proyecto seleccionado en la convocatoria de proyectos artísticos 2017 y se presenta ante el público este viernes 22 de septiembre a las 20:00 horas. La misma, estará hasta el 12 de noviembre en la primera planta del Centro Cultural Montehermoso.

Lo presentaban hoy en rueda de prensa la Concejala de Cultura, Educación y Deporte, Estíbaliz Canto, y la propia autora.

Canto, ha asegurado la valorado el programa de proyectos artísticos *“al que año tras año vamos introduciendo mejoras, lo que garantiza cada vez más y mejores proyectos presentados, habiendo pasado de 22 a 85 en sólo tres años. Por eso – ha asegurado – este año hemos seleccionado uno más, en este caso audiovisual, y es que aspiramos a que nuestra apuesta por el arte local, sirva de empujón para proyectos como RES-INCERTA y carreras artísticas”*

Nuria Pérez-Cárcamo (Vitoria-Gasteiz, 1994), recientemente Graduada en Arte por la Facultad de Bellas Artes de la UPV-EHU 2012-2016, ha sido seleccionada en la sección de fotografía de los certámenes Gazte Klik Klak 2015 y 2016, y ahora su obra RES-INCERTA en los proyectos artísticos 2017.

RES-INCERTA es el desarrollo conceptual y plástico de un proyecto anterior, Kundalini, que intenta así sobrepasar el plano personal para problematizar otra serie de construcciones más allá del individualismo.

La sociedad actual tiende a compartimentar la información, a ordenar la realidad desde el conjunto de imágenes y conceptos que se plantean. Esto hace pensar (inmersos en esta realidad) que estas clasificaciones, ideas y conceptos son mundiales cuando son completamente arbitrarias, subjetivas e interesadas.

El proyecto RES-INCERTA cuestiona esa visión preestablecida a través de la práctica artística.

Con este objetivo, se ha hecho uso del espacio que ha servido como medio para que la artista pudiera establecer nuevas relaciones entre imágenes y objetos que constrúan un relato personal, cuestionando la arbitrariedad de la ordenación sobre la cual entendemos el mundo.

Las fotografías han sido el punto inicial del proyecto: Imágenes personales, apropiadas de enciclopedias, medios etc. han servido para establecer diferentes relaciones y construir un relato en un formato cercano y sencillo sobre el que trabajar (2D).

Gracias a su reducido tamaño y la facilidad de trabajar con las imágenes en pequeños cuadernos, quitando, poniendo y moviendo, se consiguen relaciones que no se han basado en analogías conceptuales o jerárquicas, sino en profundas relaciones subconscientes y difíciles de determinar a priori.

Bajo esta mirada, la exposición se plantea como una instalación que invita a cuestionar la arbitrariedad de la ordenación sobre la cual entendemos el mundo.

Los otros tres proyectos seleccionados que se irán presentando son

- ABYSAL SPACES. Anabel Quincoces (enero-marzo 2018)
- UNA PELICULA Y UNA HISTORIA DE AMOR. Belén Cerezo (marzo-mayo 2018)
- ORBAINAK. Jorge Moneo (Presentación audiovisual:20 de marzo)

“POP PURRI”

El día 22 de septiembre, se inaugura también, y hasta el 15 de octubre, en la sala jovellanos POP PURRI, el resultado del taller realizado en el contexto de la exposición “*Afluencias. Costa Este – Costa Oeste*” de Miguel Trillo.

Con motivo de esta exposición, Montehermoso realizó una colaboración con el Servicio de Juventud y la Sociedad Fotográfica Alavesa para que Trillo impartiera un taller y se realizara un set de fotografías durante la inauguración. Los encargados de realizar las imágenes fueron Rocío López y Dani Arrizabalaga, y el objetivo era tratar de retratar las tribus urbanas juveniles y no tan juveniles de Vitoria-Gasteiz.

El resultado, será la exposición de seis imágenes de cada autor en gran formato, además de la realización de unas postales con esas imágenes que el público podrá llevarse, en colaboración nuevamente entre Montehermoso y el Servicio de Juventud del Ayuntamiento.